

BROUSSAIN APEZA?—Guztiok dakigu euskal literatura-ren historian apaizik aski badela, Mitxelenak *Historia de la Literatura Vasca* (1960) liburuko 18. orrialdean agertzen zuen bezala, baina ez zenbaitzuk uste duten haina, obra beraren 33. orrialdean aitortu zuenez (ikus 17. deia). Hara orain ere, urteak igaroaren, ura bere bidetik. 1983ko uztailaren 10eko *Argia* astekariak, 2. orrialdean, 1930eko *Euskera* birargitaratzearen aipamena egitean honako hau zion: «Broussain apaizaren izkribuaz».

Baina, Broussain, izatekotaz ere, auzapez (alkate) izan zen Hazparnen.

Azkenean, hori: Hemen ez dago kritika egiterik. Klaro ba! Zeren, kritika egiteko ere burua eta erudizio apur bat behar baitira. Buru hainbat aburu, baina aburu

J. S. M.